

1994ko irailak 2

244. zenb.

PRESS



ARRASATE



**Kobak:
museo
naturalak**

ETXE MOBEL

ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

40 URTEKO ESPERIENTZIA

duten profesionalak, sortu eta zuzendutako

logela-zerbitzu integrala

MOTA GUZTIETAKO MODELOAK

Gazte-altzarietan gama zabala

PREZIOETAN AUKERA HAUNDIA

zure logelentzako irtenbidea

ETXEMOBELen

**LASTER
IREKIKO
DUGU**

Araba etorbidea, 5 (ESCATU Pabilioia, San Andres auzoa)

Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE

Zientzialari, zientziagizon, zientziaemakume

Zein da gizarteak zientzialariei buruz duen irudia? Hau aztertzeko ondoko hiru esparrutako zertzelada batzuk ikusiko ditugu: lehendabizikoa zientzia arlotan Nobel saria jaso duten emakumeen porzentaian erreparatuko dugu, bigarrena, eskolan erabiltzen diren hiztegiatan zientzialari hitzari ematen zaion esanahian, eta hirugarrena, eskolumeek zientzialariei buruz duten irudian.

Ez dugu ezer berririk esango zientzialarien artean gizonetzkoak emakumezkoak baino gehiago direla esatean. Zientzietako Nobel saridunak hartzen baditugu irizpidez, sari estimatu hau ematen hasi zenetik, hau da, 1901etik gaur arte, guztira 10 emakume izan dira Zientzietako Nobel saria irabazi dutenak. Lehendabizikoa emakumea Frantzian bizi zen Maria Sklodowska-Curie polakarra izan zen, honek 1903an irabazi zuen Fisika Saria. Geroago, gainerako bederatiak izango ziren Fisika nahiz Kimikan sariak. Bestalde, aipatu behar 10 Nobel sari hauek ez zirela osoak izan emakume hauentzako, horrela, hiru osoak izan ziren, beste hiru erdiak eta gainerako laurak laurdenak. Kontutan izatekoa da denbora luze honetan larehun izan zirela Fisika, Kimika eta Medizinan banatutako sariak, beraz, emakumezkoen porzentaia %2koa baino ez da. Zenbait historialarik, Ulla Folsingek, besteak beste, Estolcomoko bide luzean emakumeok gauditu behar izan dituzten oztopoz mintzatzen dira. Aipatutako historialariak emakume Sarituen biografiak konstatzen dizkigu "Mujeres premio Nobel" derituz bere liburuan, bertan emakume zientzialarien urritasunaren arrazoi batzuk aurki daitezke.

Hiztegiatan hitz honi ematen zaion trata-

erara pasatuz, hiru hiztegi aukeratu ditugu, hona hemen bakoitzak dioena. Hiztegi entziklopedikoak honela dio: Zientzialaria, zientzian edo zientzietako batean diharduena, zientzi ikertzailea. Honez gain irudi bat dakar eta bertan emakume bat ikusten da lanean. Lehen hiztegiak: Zientzian iharduteko lanbidea duen pertsona. Hiztegia 2.000ak: "cientifico: zeintzilari, zientzizigizon" baina ez da agertzen zientziaemakume.

Eskolumeek zientzialariei buruz duten irudira pasatuz, esan, 1976an Basalla-k batxilergoko ikasleekin eginiko ikerkuntzatik ondorio hauek atera ziren: "Zientzilaria, bata zuria jazten duen gizona da eta laborategi batean dihardu lanean.

Betaurrekoak ditu eta urte asko du... bizardu-na da gehienetan...eta tresna askorekin dihardu lanean: kristalezko tuboak, makina arraroak, metxeroak, erlojuak,...kuadernotxo batean idazten du. Halako batean zutitu eta "eureka, lortu dut" esan dezake. Bere lana arrisksua da eta aurkikuntza batzuk isilpean gordeko ditu". Lan honetan diharduen pertsonaren sexu eta iza-teari dagokienez, antzeko irudia dute Madriderako zenbait eskolatako 10 urtetako ikasleek (1992). Orduan, 318 haurri zientzialari baten irudia marrazteko eskatu zitzairen, taldearen erdia neskak ziren eta beste erdia mutilak. Guztietatik, 3 mutilek eta 26 neskak zientziaemakumea marraztu zuten. Gainerako guztiek zientziagizona.

Aipatutako hiru esparruetako datuok gutxi eta partzialak badira ere, adierazgarriak dira gizon eta emakumeen arteko egoera desberdinak ulertzeko. Horregatik, nahiz eta itxura batean berdintasunaren bidean gaudela iruditu, egiteko daukagun bidea luzea eta guztiona dela deritzo.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Amaia Martiartu

GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...

ZUHAITZ
jatetxea




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publikatzailea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administratzailea:** Argutzane Gaintzarain eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketatzailea:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Iñizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, Esther Balanz, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalaiko Ingurugiro Eskola, Bautista Agorria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñatza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Arrasateko Espeleologia Taldea

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

**Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia**

Laguntza terapia

**Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia**

**Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE**



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

Agian,

"Alkoholiko

**Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TFNOA: 79 19 21

Drogen aurka

Toxikomania mota guztien aurkako borroka eta prebentzioan hartutako konpromezuarekin koherente izanez eta konprometituta dauden gainerako kolektiboekin solidario izanez, honakoa adierazi nahi genuke:

Gizartearengan orokorrean arazo honekiko somatzen dugun sensibilitaterik eza salatzeke aprobetxatu nahi dugu aukera hau, denok kezkatu behar gintuzkeela uste baitugu.

Jabetzen gara herritarrek drogaren ondoriozko arazoen aurrean duen inibizioaz, hala erakusten dute eta berriki egin diren inkesta egoerek (toxikomanioenganako eta zentruak jartzearen kontrako jarrera).

Ez da nahikoa gure politikariek, fetxa jakin batzutan, arazo honekin konprometituta daudela esanez ahotsa altxatzea.

Ez ditugu erakundetatik bultzatzen diren programak, metadona eta antzekoak salatuko, baldin eta drogarik gabeko progra-

men kaltetan ez badoaz.

Ziur gaude, eta horregatik adierazi nahi dugu, publikoki adierazi ere, drogaren eta horren ondoriozko guztiaren kontrako borrokak prebentzioa, heziketa eta sensibilizazioa bultzatu behar dituela, arazoa bizi dutenak erabat errekupea daitezten tratamendu eta gizarteratzearekin batera; loturarik gabe, gizartean dagokien lekua duintasunez bete dezaten.

**JABIER ZUBILLAGA
(GIZAKI HELBURUA)
(Erredakzioan itzulia)**

Eskerrikasko

Eskutitz honen bidez, ezbeharrez eskalatzen hil zen Iban Learreta Errarte gaztearen familiak eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizuegu erori zen lekuan berarekin egon zinetenoi eta igarotzen ari garen momentu gogor hauetan lagun zaituztegun guztioi. Baita hileta elizkizunetan parte hartu zenutenoi eta gainerako lagun eta gazteei ere.

Mila Esker.

**IBAN LEARRETAREN
FAMILIAK**

Oharra

Zure iritziak gure gutunene sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Zer egin duzu oporretan?




**Kerman Azkarraga
Ikaslea (14 urte)**

Laguardian izan naiz lehengusuarekin hilabete guztian zehar. Batez ere kirolean egin dut: futboleak eta tenisean jokatu eta igerilekuan ibili.



**Franziska Del Palacio
Etxekoandrea
(56 urte)**

Zamorara joan nintzen eta bertan pasa dut abuztu osoa. Bero egiten zuen aren, ondo ibili naiz.



**Antonio Clemente
Langilea (38 urte)**

Arrasaten geratu naiz, baina txango batzuk egin ditugu. Donostiako eta Gasteizeko jaietan izan naiz eta eguraldi ona egiten zuenean hondartzara joaten ginen. Ondo pasatzeaz gain, atsedean ere hartu dut.



**Karmele Gabilondo
Fagorreko langilea
(47 urte)**

Hilabete guztia Hendaian pasa dut, kanpinean. Gustora ibiltzeaz gain, deskantsatuta etorri naiz. Hori bai, opor motzak iruditu zaizkit.



**Jose Miguel Gonzalez
Ikaslea (19 urte)**

Extremadurako herri batean izan naiz eta ederto ibili naiz. Egunez igerilekura joaten nintzen eta gauean diskotekara.



**Miren Arginzoriz
Ikaslea (12 urte)**

Alikanteko herri batean egon naiz hamabost egunez eta gainontzeko egunak Arrasaten pasa ditut. Egunez, hondartzara joaten ginen eta gustora ibili naiz.



**Claudio Ros
Jubilatua (67 urte)**

Hilabete erdi Nafarroan pasa dut. Hara eta hona ibili gara eta mendian ibilalditxoak ere egin ditugu. Oso ondo pasa dut.



**Pili Ortueta
Udaletxeko langilea
(35 urte)**

Hondarribian izan gara bigarren hamabostaldian. Ez dugu oso eguraldi ona izan, baina atsedean hartu dugu.

**UGARAN
jatetxea**

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 2
 Egunez 22.00ak arte: Irizar, Erguin.
 Gauez: Matxiategi, Bergara.

Larunbata 3
 Egunez 22.00ak arte: Amezua, Sta. Marina
 Gauez: San Antonio, Bergara.

Igandea 4
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.
 Gauez: Puy, Barrenkale, Bergara.

Astelehena 5
 Egunez 22.00ak arte: Español, Iturriotz.
 Gauez: Estella, Matxiategi, Bergara.

Astearte 6
 Egunez 22.00ak arte: Irizar, Erguin.
 Gauez: Camacho, Oxirondo, Bergara.

Asteazkena 7
 Egunez 22.00ak arte: Amezua, Sta. Marina
 Gauez: Guallar, San Antonio, Bergara.

Osteguna 8
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 Gauez: Camacho, Oxirondo, Bergara.

2 OSTIRALA

ZINEA
 "Los Picapierra" 7etan eta 9.30etan.

ANTZERKIA
 Geroa taldeak antzetzuta, "Las Amazonas del caballo" Elorrioko Arriola kultur aretoan, gaueko 10.30etan.

ARGAZKI LEHIAKETA

"Gazteak Naturan" V. argazki lehiaketa antolatatu du Arrasateko Udaleko gazte-zerbitzuak. Bi kategoria: 14-20 urte bitartekoak eta 21-35 urte bitarteko edozein. Gaia: "Gazteak naturan". Bi modalitate; zuri-beltzean eta koloretan. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an bukatuko da. Informazio gehiagotarako gazte zerbitzura joan edo 770065 zenbakira dei egin.

3 LARUNBATA

ZINEA
 "Los Picapiedra" 5etan, 7.30etan eta 10 etan.

FUTBOL PARTIDUA
 Arenas-Mondra partidua, Arenasko Gobela futbol zelaian.

ANTZERKIA
 "Rezagados" antzerkia Elorrioko Arriola kultur aretoan, gaueko 10.30etan.

4 IGANDEA


ZINEA
 "Los Picapiedra" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

MARIXEKAKO JAIK
 Futbol partidua Aramaio eta Arrasate artean, goizeko 10.30etan. Meza Santua 12etan. Euskal dantzak eta trikitilariak ordu batean. 3etan herri bazkaria. 4etan herri kirolak. 6etan erromeria "Txinparta" taldearekin.

ANTZERKIA
 Teatro Gasteiz taldearen eskutik "Pasionaria no pasaran" antzezlan. Elorrioko Arriola kultur aretoan, 10.30etan.

AUTO-KROSA
 Auto-krosa Elorri. Irteera: Eroski ondoan. Ordua: arratsaldeko 4.30etan.

GATZAGAKO JAIK
 Txirrindulari lasterketa, lehen eta bigarren mailako afizionatuak, goizeko 9etan.



JUSTO GARATE BEKA

Bergarako Udalak Justo Garate Arriola ikerlari eta medikuaren oroimenezko beka deialdia plazaratu du. Ikerketa lana euskaraz egingo da eta iraupena 11 hilabetekoa izango da, azaroaren 1etik lanean hasita. Bekaren diru zenbatekoa 935.000 ptakoa izango da. Eskabideak aurkezteko inprimakiak Bergarako Udaletxean jaso ahal izango dira eta epea iraila osoan zehar egingo da zabalik.

JOKIN ZAITEG LEHIAKETA

Jokin Zaitegi itzulpen laburren lehiaketa antolatu du AEDK, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Aurtengo gaia "Irudi bidezko komunikazioa 2000. urtean" izango da. Itzulpenak gaztelera ez den beste edozein hizkuntzatatik egin ahal izango dira, eta originalek 91z geroztik eginak beharko dute izan. Lanak epaitzerakoan testuaren interesa, itzulpenaren zuzentasuna eta euskararen dotoretasuna hartuko dira kontutan. Sariak: 250.000 pta eta finalistentzat 50.000 ptako akzesitak. Ikastetxeetan irailan banatuko da informazioa, baina aurrez eskuratu nahi izanez gero, dei egin edo jo AEDra.

5 ASTELEHENA**ZINEA**

"Los Picapiedra" 7etan eta 9.30etan.

ODOLEMATEA

Odol ematea Arrasateko anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara. Arabako odol bankuak.

TXATXILIPURDI

Txatxilipurdik antolatutako udalekuak zabalduko dira. Orduetgia: arratsaldeko 3etatik 6etara. Txatxilipurdi Ludotekak ere atek zabalduko ditu. Orduetgia: astelehenetik ostiralera 5etatik 8etara; larunbate-tan, 11etatik ordu batera.

UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSA

Donostiara eta Bilbora, egunero joan eta etortzeko autobus zerbitzua antolatzeko asmoa du "Aixola" ikasleen elkarteak. Goizez nahiz arratsalde, ordutegi desberdinaz. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezue izena, irailaren 23 baino lehen.

MARIXEKAKO JAIK

Marixekako jaiak izango ditugu asteburu honetan Aramaion. Besteak beste, futbol partidua, herri bazkaria, herri kirolak eta erromeria izango ditugu.

6 ASTEARTEA**ZINEA**

"Los Picapiedra" 7etan eta 9.30etan.

ODOLEMATEA

Odol ematea anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

7 ASTEAZKENA**ODOLEMATEA**


Odolematea anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

GATZAGAKO JAIK

Dorletako Santutegian Bede-ratziurrena, arratsaldeko 7etan. Bukatu ondoren gazta, ogia eta ardoa banatuko da.

8 OSTEGUNA**LEHIAKETAK GAZTEENTZAKO**

AEDk antolatuta eta Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru aldundiaren laguntzarekin "Arrasate 94", gazteentzako literatur lehiaketak antolatu dira. Bi maila, 14 urte arte eta 14 urtetik 18 urte bitartera. Hiru esparru jarri dituzten, ipuina, poesia eta bertso-paperak. Deba garaian bizi eta ikasten duten guztiek har dezakete parte. Euskaraz idatzitako obra orijinalak eta inoiz argitaratu gabeak bakarrik aurkez daitezke. Gaia librea izango da. Idazlanek, hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde bakar batetik idatzita egon beharko dute. Lanak helbide honetara bidali beharko duzue azaroaren 4a baino lehen: AED Elkarte, "Arrasate 94" lehiaketa, Pablo Uranga kalea, 4 Arrasate. Edo zure ikastetxean bertan.

**ODOLEMATEA**

Odolematea irailaren 5ean, 6an eta 7an Arrasateko anbulategian.



Ospitalera bisita

Antton Arbulu Hirigintza eta Arkitektura diputatuak Santa Agedako gizonzkoen ospitala bisitatu zuen abuztuaren erdialdean. Joan den urteko maiatzean eraikuntza berria egiten hasi ziren San Joan ospitalean eta obra horiek zelan doazen ikusten izan da diputatua. Datorren urteko udaberri alderako bukatuta izango den eraikuntza berriaz, Arrasateko estatuko psikiatriko modernoetarikoa izatea espero da.

Rotonda bukatu

Abuztuan zehar, Maalako rotonda guztiz bukatu dute. Rotondak lau besotako glorieta dauka eta era horretan trafikoari dagokionez herriko puntu beltzenetarikoa zena konponduta geratuko dela espero da. Gainera, inguruak lorez edertu dira eta Musakolatik Takolora bitarteko zeharbide guztian mikroglomeratua bota dute.

Herri-Tour autobusik ez

Beste hainbat euskaldunek bezala, arrasatear batzuk ere arazoak izan zituzten oporraldia pasatzera eraman behar zituzten Herri-Tour autobusekin. Bidaia agentzietatik adierazi digutenez, itxura denez behar den baino



Lopez de Arriortuaren bisita

Uztailaren 29an, Iñaki Lopez de Arriortua enpresari ezagunaren bisita izan genuen Arrasaten. Urtero bezala, kooperatibetako hainbat arduradunekin solasaldia izan zuen enpresariak MCCren egoitzan. Solasaldian, besteak beste autoen merkatua zelan dagoen azaldu zien. Lopez de Arriortua eta bere emaztea ia bi ordu beranduago iritsi ziren Arrasatera, baina kooperatibetako arduradunek itxaron egin zuten.

San Frantziskoko etxeak bota

Abuztuaren lehen astean San Frantziskoko etxe batzuk bota zituzten. Omu etxea, Katalanarena eta Villa Vitoria izan ziren bota zituzten lehen etxeak. San Frantziskoko etxe horiek, 110 etxebizitzatako urbanizazio berria egin behar dutelako bota dituzte.



maila baxuagoko lizentzia dutenez, autobus horiek ezin izan zuten hitzartutako zerbitzua bete. Horregatik, trenez joan behar izan zuten batzuk eta beste konpainia batetara jo zuten beste batzuk, itzuli ahal izateko. Herri-Tour autobusak aspalddidanik arduratu izan dira bidaiariak Andaluzia aldera eramateaz. Hori dela eta, bidaia agentziek garbi utzi nahi izan dute autobus konpainia hori ez dela pirata.

Intsumisioa kartzelaratu

Abuztuaren 16an, Mikel Beitia 23 urtetako intsumisio arrasatearra, Martuteneko kartzelan sartu zuten. Goizeko lehen ordutan ertzainak azaldu zitzaizkion etxera, kartzelaratzeko aginduz. Hasieran herriko ertzaindegira eraman zuten eta ondoren, Martutenera eraman zuten. Kartzela horretan 11 egun pasa ondoren, joan den ostira-lean 3. gradua eman zioten.

Horrela, goizeko 7.30etan kartzelatik irten eta arratsalde Fagorren lan egin ondoren, gaueko 11etarako itzultzen da Martutenera. Abuztuan zehar, Beitiaren eta intsumisioaren aldeko manifestazioak egin dira herrian.

Mikel Beitia martxoan epaitu zuten eta 18 hilabetetako zigorra ezarri zion epaileak.

ROTULOS ZABALETA

ERA GUZTIETAKO ROTULOAK

San Lorenzo Industrialdea Tfnoak: 76 57 34 FAX: 76 58 53
Amillaga, 21 (Gasolindegia ren parean) BERGARA

PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 25 60
ONATI

Uribarriko jaiak

Astebukaeran Bartolome deunaren jaiak ospatu ziren Uribarrin. Jaiak ostiralean hasi ziren bertso jaialdi eta pilota partiduekin. Larunbatean ere festa giroak jarraitu zuten Uribarrin, bolo txapelketarekin. Iganderako zenbait ekintza antolatu ziren eta zozketa ere egin zen. Hona hemen zenbaki sarituak: lehen saria, bildotsa, 276 zenbakiarentzat; bigarren saria, urdaiazpikoa, 1041 zenbakiarentzat eta hirugarren saria sorpresa, 1129 zenbakiaren zutenaren zuten.

Lanerako itzulera

Arrasateko kooperatiba eta enpresa gehienak abuztuaren 29an hasi ziren lanean. Ederlan aldiz, abuztuaren 23an hasi zen. Udaletxeko langileak, berriz, irailaren lehenean.



Bake epaitegiaren aurkako atentatua

Astelehenean, goizeko ordu bata inguruan, ezezagun batzuk Arrasateko bake epaitegiko leihoko kristala apurtu eta gasolina isuri zuten barrura, gero su emanaz. Berehala epaitegia sutan jarri zen baina epaitegia dagoen etxebizitzako bizilagunak eta inguruan zebiltzan ertzainak gertatzen zenaz ohartu eta sua itzaltzen hasi ziren. Zubillagako suhiltzaileei ere deitu zieten baina horiek etorri orduko sua itzalia zuten ertzainek.

Nahiz eta sua bizkor itzali, suak eragindako kalte materialak nahiko handiak izan dira eta aste osoan zehar epaitegia itxita egon da. Batez ere behe solairuko artxiboa eta tresneria izan dira kaltetuak baina oraindik zehazki kaltea zenbatekoa izan den ez da jakitera eman.

Villa de Mondragón txapelketa

Urtero moduan, aurten ere Villa de Mondragón futbol txapelketa jokatu da. Lehen partiduan, UDA eta Mondra izan ziren aurrez aurre eta atxabaltarrek 0-1 irabazi zuten.

Bigarren partiduan, Eskoriatza eta Aloña Mendi taldeek neurtu zituzten indarrak eta oñatiarrek, 0-5eko emaitzaz irabazi zuten.

Asteazkenean arratsaldeko 6.30etan, finala jokatu zen Atxabalpen. Jende asko hurbildu zen UDA eta Aloñaren aurkako norgehiagoka ikustera. Aloña taldeak, urtego deboraldian 3. mailan jokatuko duenak, nagusitasun osoa erakutsi zuen partidu guztian zehar eta atxabaltarrei lau gol sartu zizkion. Uda taldeak, berriz, gol bakarra sartu zuen.

**URRIN
EDARITEGIA**

Etxeko janari bereziak

**UDALAITZ
TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 61

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73


**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

 **Zenbaki**

**Enpresen
Aholkularitza**

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



JOXE ARANZABAL *

Eskolako gorabeherak

“Nik gustoren irakurtzen dudan agerkaria Juanito Leibarrek Eskola Politeknikoan ateratze duen Gorabeherak orria da” esan zidan Jose Antonio Altuna Txatillok 1990 eko goiz batean Maalako okindegiaren aurrean. “Bost minututan goitik behera irakurtzen dut eta horrekin egunean jartzen naiz Eskolari eta bere inguruari dagokionez. Desietan egoten naiz eskuetan hartzeko”. Urtebete beranduago, Juanito Leibar jubilatu eta Gorabeherak desagertu egin zen.

Eskola Politeknikoak bete dituen 50 urteetatik 15 urte Gorabeherak berripaperean jasota daude, 1976tik 1991ra arte argitaratu zen eta. Juanito Leibar idazle-argitaratzaile-banatazailea garai egokian leku egokian suertaturiko pertsona egokia izan zen. Idazteko zaletasun handikoa, Eskolako idazkaria

izan zen 32 urtetan zehar. Eskolari buruzko berri garrantzitsu eta txiki guztiak bere eskuetatik pasatzen ziren, beraz. Berriak makinaz idazten zituen eta urteetan handik eta hemendik jasotako eta gordetako irudiekin hornituta estu estu antolatzen zituen, orrialde biek eskaintzen zioten lekua aprobetxatzen.

Teknika eta teknologia kezka nagusi zituen eskolan, Juanito Leibarrek kazetaritzaren perla bat

.....
“Juanito Leibarrek kazetaritzaren perla bat egin zuen Gorabeherak orriarekin.”

egin zuen Gorabeherak orriarekin: laburra, zehatza, informakaria, umoretsua eta entretenigarria, denek irakurtzen zuten, baita berak idazten zituenekin bat ez zetozenek ere, denetarik eta estilo biziz idazten baitzituen.

Hainbat eta hainbat enpresak diru mordoa xahutzen dute Juanitok musutruke egiten zuena egiteko (“barne komunikazio” deitzen zaio orain), hark erdietsi zuen maila lortu ezinik. Arrasaten izan zuen jarraitzailearik, Arrasate Press egiteko orduan Gorabeherak eredu izan genuen eta. Beste horrenbeste esan dezaket nire oraingo lanarekin, Gorabeherak nortasun handiko berripaper zoragarria izango zelako. Gorazarre eta ohore, beraz, kazetarien maisu izan genuen Juanito Leibarri eta zorionak Eskola Politeknikoari. Hiru urtez mutu egon eta gero, Gorabeherak orriak berrekuratuko al du ahotsa!

* KAZETARIA

USTEAK USTE

EMAKUMEARENTZAT ERREZETAK

Azkenengo urtetako abuztu guztiak eman duten antzerako uzta eman digu honek ere: Gure egoera latz hau aldaezina bilakatu nahi dutenen ekintza eta iritziak gora eta behera. Horretaz gain, komentario ugari eman duen “iritzia” ere bai. Oso ohituta (eta biguinduta) nago, “benetako” demokrata, abertzale, iraultzaile, pakezale, feminista, sozialista edo... izateko zer egin behar dugun “argi eta garbi” eguneroko erakusten diguten zenbait Pontifizeren erretolirik entzuten edo irakurtzen, baina gure bizitzaren muinean holako errezetarik!! Emakumeok, ahaztu zuen bizitza, zuen aukerak... hemen eta aberria salbatzeko umeak egiteko pronto behar dugu eta... Dena den, ez da lehen aldiz holakorik irakurtzen dudana, eta beti gauzatxo bat nabaritu dut faltan: Francok garai haietan bezala, eta español gehiago izateko ahaleginean saiatu eta hamalagarren umea lortzen zutenei bezala, guri, zenbatgarrena “emandakoan” erregalatuko diguten pisutxoak.

NEKANE SAN MIGUEL

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

TTUKUN

Fotokopiak
 Enkuademazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduzkoia
 Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
 Tfnoa: 79 46 62

“Orain dela gutxi Monterron Jauregian izan nintzen, Arrasateko Kultur Etxean. Astebarruko egun bat zen eta jende nagusia zegoen liburutegian eta pintura aretoan. (...) Adineko jendeak hizkuntzak ikas ditzan akademiak daude. Zeramika tailerra dago. Informatika ikastaroak daude gure herrian. Emakumearentzako formazio eta hitzaldi zikloak. ATB eta ARRASATE PRESS daude. Abesbatza eta musika mugimendu handia dago. Hilean kontzertu bi baino gehiago egoten da. Gimnasiako aktibitateak eta pasiatzeko kultura ere badaude. Zinemagintza mugitzen da. Adineko jendearentzat ekintzak izaten dira. Brikolagekoak ere egoten dira. Yoga Eskola ere badago (...)

Heziketa iraunkorrak bi arlo ditu gutxienez: batetik norberak eskuartean duen hartan eguneratzea, lana, ihar-duera edo teknika berrietan; beste arlo bat heziketa moral pertsonalarena da. (...)

Ez dakitena ikasteko gai dira pertsonak eta euren egitura moral sakonean ere hobetzeko gai dira, jendeak badauki on bihurtzen. Hori sinetsiko ez banu, lanbidea aldatu beharko nuke. Egia da okerrera ere egin daitekeena. Hori gerta badaiteke, onera ere egin daiteke, beraz”.

Jose Mari Mendizabalek

lankide

“Anne Igartiburu adibidez, Tele 5ra joan zaigu. (...) Gauza asko esan dezaket emakume honen alde. Lehenik eta behin, jarraitzaile eta zaletuen oso zerrenda luzea lortu duela Euskal Herrian. Agian ondo egokitzen da kate berriaren irudi estandarizatura, tele-gorputzera alegia, baina Tele 5en orain arte ikusi ditudan guztiak baino mila bider hobetagoa da Igartiburu. (...) Bere muturtxo gora eta behera mugitzen ez badu eta urtero silikona dosia gehitzeko eskatzen ez badiote, Concha Velasco berria izan liteke aurki. (...) Tele-5ekoek, azkenean, Euskal Herriko audientzia bereganatzea lortuko dute Anneri esker”.

Ines Intxaustik

Egunkaria

Zer moduz joan dira aurtengo auzolandegiak?


Oraindik balorazio orokorra egin gabe dugun arren, uste dut orokorrean aurtengo auzolandegiak ere ondo joan direla.

Aurten hiru txanda izan dira. Lehen txandan 18 lagun izan ziren, bigarrenean 25 inguru eta hirugarrenean gutxigora behera 35 lagun. Gainera esan beharra dago, guztiak ez direla arrasatearrak izan. Aurten Euskal Herriko beste toki batzuetako jendea ere etorri da gurekin Kanbora, beraz lagun berriak egiteko aukera handiagoa izan da.

Iaz bezala, Kanboko ikastolan lan egin dugu uztaila eta abuztuan zehar. Hainbat gela ikasgela izateko moldatu ditugu eta gainera, 6 metro altuerako pareta duen frontoi estalia ere egin dugu. Beraz iaz eta aurten egindakoaz, Kanboko lanak bukatu ditugula esan dezakegu. Horregatik, datorren urtean beste nonbaiteko bazterrak txukundu beharko ditugu.

Lan guzti hori goizean egiten genuen eta arratsaldean, berriz, aisialdiarekin lotutako ekintzak egiten genituen. Era horretan, auzolandegietan izan garenok iparraldeaz ezagutzeko aukera izan dugu eta hemen egin ezin diren kirol batzuetan parte hartzeko aukera ere izan da.

Esan bezala, azken balorazioa egin gabe dago baina abuztuaren 14ean, azken txanda amaitu ostean, zenbait lagun beste aste batez goiz eta arratsaldean lan egitera joan zirela kontutan izanda, giroa ona izan dela eta bertan izandakoek ondo pasatu dutela esateko moduan gaudela uste dut. Elektrizitateaz, iturgintzaz eta eraikuntzaz lotutako gauzak ikasteko aukera izan da eta euskara hobetzeko modua ere izan dute batzuk.



Danel Goikolea
Auzolandegietako partaidea



Miguel ALTUNA

INSTITUTUA (elementala) BERGARA

HEZKUNTZ ESKAINTZA

- **REM (Batxilergo orokorra)**
GOI MAILAKO BATXILERGOAK
- **BTI (Batxilergo Tekniko Industrial)**
- **BAG (Batxilergo Administratiboa)**
L.H. II (Lanbide Heziketa II)
- **ADMINISTRATIBOA**
- **ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA**
- **MEKANIKA**
MODULO PROFESIONALAK III
- **MEKANIKAGINTZA**
- **ENTREPRESEN ADMINISTRATIBOA**

Matrikula epea:
irailaren 8etik-12ra
Ordutegia:
Goizeko 9etatik-13ak arte
Argibideak:
Ibargarai -1
Tfnoak:
76 24 91 - 76 38 40



Erretaula 1695ean egin zuten Jakobo Ayesa eta Rafael Larralde arkitektoek.

San Frantziskoko erretaula konpondu egingo dute

Sitsak jota eta erortzeko arriskuan dagoen San Frantzisko elizako erretaula, konpontzen hasiko dira azaroaren bukaera inguruan. Intxaur eta gaztaina egurrez eginda dagoen erretaula sitsak jota zegoela ikusirik, badira urteak frantziskotarrek Foru Aldundian konpontzen hasteko beharra azaldu zutela. Orain dela bi urte diputazioak ikerketa egin zuen eta abuztu erdialdean, erretaula konpontze-

ko dirulaguntza emango duela adierazi die frantziskotarrei.

Desinfestaketa egiteko, 1.023.000 pta. erabiliko dira eta berriztatze lanetarako, berriz, 14.029.000 pta. Gastuaren %50a Foru Aldundiak ordainduko du eta gainontzekoari aurre egiteko, frantziskotarrek beste ate batzuk ere joko dituzte. Batez ere, aurrezki kutxetara eta udaletxera joko dute, baina fededunen laguntza

jasotzea ere espero da.

Orokorrean dena kalte-tua egon arren, batez ere erretaularen eskuma alde da oso egoera txarrean dagoena. Azaleko kolorea gordetzen duen arren, barrualdea erabat janda dago. Konponketa lanak egiteaz, "Kalicot" izeneko enpresa gipuzkoarra arduratuko da. Erretaularen itxura ahalik eta gutxien eraldatzen ahaleginduko dira adi-tuak.

"Monumentu Artistiko" izendatutako erretaula

1695ean Jakobo Ayesa eta Rafael Larralde arkitekto bergararrek egingutako erretaula, interesgune probintzialeko monumentu artistikoa izendatu zuen Gipuzkoako Diputazioak 1964ean. Artelana barroko estilokoa da, beraz apainketak garrantzia handia du. Bestalde, hiru zatitan banatua dago eta erdiko alde da garrantzitsuena. Goialdean San Frantziskoren irudia dago, erdian Amabirjina eta bere alboetan San Buenaventura eta Santo Domingo de Guzman. Ezkerraldean, berriz, San Antonioren erretaula dago eta estrukturarari tinko eusten dion arren, hori ere konpondu egingo da.

Baina frantziskotarren eliza apaintzeaz arduratu den bakarra ez da erretaula izan. Eliza eraiki zutenenean dirurik ez zegoela eta, pintatu egin zen orain erretaulak estaltzen duen horma eta ondoren erretaula egin zen. 1791n berriz, urre kolore eman zioten.

LARUNBATETAN ERE BAI



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

94 - 95 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

INGELES

ALEMANA

FRANTSES

AHIZKE S.COOP
Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

AHIZKE S.COOP
Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00

Maltzaga-Urbinak eman dio irtenbidea saskibaloit taldeari

“Urbina-Maltzaga Saskibaloit taldea” izenarekin jokatu du Arrasateko saskibaloit taldeak Eba Ligan. Azken unera arte itxaron behar izan dute Federazioak eskatzen zituen baldintzak betetzeko. Azkenean 4 milioiko abala, sponsorra eta parketezko kantxa izatea lortu dute. Abaleko 4 milioiak saskibaloit taldeko zuzendaritzak jarri ditu eta Euskadiko Kutzaren laguntza izan dute tramine guztiak azkartzeko.

URBINA-MALTZAGA IRTENBIDEA

Datu guztiak aurkezteko epearen bezperan lortu zuten sponsorra. Zenbait enpresa eta entitateri euren beharrak aurkeztu ondoren, azkenean Urbina-Maltzaga irtenbideko entresak begionez ikusi zuen proposamena eta laguntzeko gertu agertu zen. Hala ere, Urbina-Maltzaga entresak jarri dien baldintza taldeak



Uztailaren azken astean Sponsorren berri eman zuten saskibaloit taldekoek.

bere filosofiaz jarraitzea izan da, inguruko jokalariez osatutako taldea izaten jarraitu behar duela. Saskibaloit taldeko zuzendaritzak esan digunez, Maltzaga-Urbina irtenbideko entresarekin duten harremana kirol maila eta ekonomikoa besterik ez da. Aurten 20 eta 30 milioi artean egon daiteke Arrasate saskibaloit taldearen aurrekontua. Sponsorrengandik % 40tik 45a lortzea espero dute, %15-

20a instituzio publikoek ematen dituzten dirulaguntzetatik eta gainontzekoa, bazkide kuotak, sarrerak, errifak...eta horrelako ekin-tzetatik ateratzeko itxaropenaz daude. Sponsorren aportazio ekonomiko, dena dela, azken aurrekontuaren araberakoa izango da.

EGURREZKO KANTXA IRAILAREN 15ERAKO

Udalak Musakolako kiroldegian zurezko kantxa jarriko du saskibaloit taldeak

maila horretan jokatzeko beharrezko duelako. Oraindik egokitze lanarekin hasi ez badira ere, irailaren 15erako eginda egotea espero da, edo urriaren lehen astebururako gutxienez, orduan hasten baitu denboraldia saskibaloiak. Era berean, esan beharra dago parketez egindako kantxa ez dela saskibaloit taldearentzat bakarrik izango, beste kirol taldeek ere erabiltzeko aukera izango dute.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Gomix, Yoli, Alberto eta Iñaki abuztuko oporretan Islandian egon dira. 20 egun pasa dituzte bertan eta paraje politak bezain ikusgarriak ikusteko aukera izan dute. Argazkia Godafoss-eko urjauzian dago aterata.



Al Andalus taldekoek, -nola ez?- Andalusia aldean pasa dituzte oporrak. Abuztuaren

21ean Huelvan oporrak pasatzen ari ziren Al Andalus taldeko arrasatearrak Rocioko

Amabirjinaren ermitan elkartu ziren, bertan Arrasateko bikote bat ezkondu zelako.

Sevillan dantzan egin eta primeran pasa zuten eguna. Guztira 51 lagun elkartu ziren.




HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara

Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

IZEN PROPIOAK

● **Anne Igartiburu**, 25 urteko elorriotarra, Tele 5 kate pribatuko "Pareja feliz" saio berriko aurkezlea izango da. Anne ATBko "Atbketan" eta "Bakarka" saioetako aurkezlea izan zen eta ETBn "Show-Show" eta "Boulevard" saioak aurkeztu ditu. Aurrez Ikerlanen lan egin zuen.

● **Esti Loiti**, 25 urte, Mondra emakumeen taldeko entrenatzailea izango da eta taldeko kapitain lanak ere beteko ditu. Mondrasport saioa aurkezlea da.

● **Amaia Garro**, 29 urteko arrasatearra, Donostia-ko "Irutxulo" aldizkariko publizista berria da. Amaiak publizitatea ikasi zuen Leioan. Aurretik ARRASATE PRESS-en, Eustat-en eta Arrasateko Udaltxean lan egin du.



Abuztuko oporretan lan egin dutenak ere egon dira. Bertako auzolantegian lan egiteko asmoz hainbat arrasatear joan zen Kanbora. Arrasatearrez gain, Gipuzkoa guztiko 20 bat lagun jo eta sua ibili dira lanean. Lan horren ondo-

rioz Kanboko ikastolako frontoia bukatu egin ahal izan dute. Gazte hauek "lan egin eta ondo pasau" filosofia eraman dute eta helburu biak ondo baino hobeto bete dituztela esateko moduan gaude.



Beste batzuk, berriz, ez dira hain urruti joan, baina Orio aldean ederto pasatu dutela ziur gaude. Urtero moduan zenbait arrasatearrek Orioko kanpinean pasatu dituzte oporrak; karabanetan egoten dira

gehienak. Aurten abuztuko egun batzutan gutxienez eguzkia ikusteko aukera izan dugunez, hondartzan tripa gora eta tripaz beheara, lasai egon dira. Gazteenak Zaurautzera joaten ziren juerga egitera.

NAROKI

Urrezko bitxiak

ERDIKO KALE, 23
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05


hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



VITORIA - GASTEIZ

ZURETZAT SORTUTAKO GAURREGUNGO ESTILOA

- Altzariak
- Dekorazioa
- Baxerak

**Irailetik
urtarrilara
ATBn
ikusiko
gaituzu**

- Kristaleria
- Opari-gaiak
- Arte Garaikidea

EZ DUZU SINISTUKO

- Zure lehen etxea jartzea erabaki baduzu, **ezkontza-zerrenda** antolatuko dizugu, diru-baldintza paregabetan.
- Zure etxea erosoago egin nahi baduzu, **bisita gaitzazu**. Ideia asko emango dizugu.

**ORDAINKETA :
18 hilabetera arte interes barik**

El Zaguán de los Detalles

Correria kalea, 36-38-40 (Virgen Blanca Plazatik 100 metrotara) Vitoria-Gasteiz - Tfnoak: (945) 28 86 09/28 78 82

*Michael H. Long
eta Charlene J. Sato*

Kooperatibismoa kopiatzera etorriak

Hizkuntzen mundua da senar-emazte hauen lanbidea. Michael psikolinguista da eta Marlen soziolinguista. Hawaiko unibertsitateko katedradunak dira biak. Oporrak aurretik, Arrasatera etorri ziren Hawaiko herritar batzuk hala eskatuta. Hemengo mugimendu kooperatibistaz liburuak esaten dutena egia ote zen ikustea eta hemengo ereduaren zelakopia daitekeen ikustea izan ziren bidaiaren helburuak.

- Zer dela eta Arrasatera?

- Hemengo kooperatiben antzeko zerbait eratzea eztabaidatzen ari da aspalditik Hawaiko herritar talde bat. Hawaii EEBBen menpe dagoen estatua denez, bada-go independentziaren aldeko mugimendu txiki bat. Mugimendu horretan dauden ustez, hemengo kooperatibismoaren antzeko sistemak autonomia eman diezaieke; horregatik, hemengo ereduaren antzeko zerbait Hawain sortu nahian ari da talde hori.

Baina kontu hori ez da bapatean sortu. Urtetan ze-

har, hemengo mugimendu kooperatibistari buruzko liburuak irakurri izan ditugu eta gainera horri buruz ere eztabaidatu dugu. Orain, berriz, irakurri duguna errealitateaz bat datorren ikusi nahirik lan hori egitera bidali gaituzte gu.

- Eta liburuak esaten dutena egia da?

- Harrituta gaude. Mugimendu hau nahiko handia zela aipatzen zuten liburuak baina ez genuen uste hainbestearainokoa izango zenik. Mondragon Korporazioa sortu zenik ere ez genekien eta MCCk zelako dimentsioa duen jakitea "txoke" izugarria izan da. Bestalde, inpresio on guztiak konfirmatuta geratu zaizkigu. Jakina, taldetxo txiki bat da hemengoa kopiatu nahian ari dena, beraz, gure asmoa oso apala da. Ezin dugu pentsatu horrelako zerbait bapatean eraiki ahal izango dugunik.

- Hemengo mugimendu kooperatibista ezaguna da atzerrian?

- Ez, ez da oso ezaguna. Guretzat ere zaila izan da kooperatibismoari buruzko liburuak aurkitzea, oso bi-



bliografia gutxi dago eta. Baina hala ere, hemengo mugimendu kooperatibistak, estatu espainiarrean edo Euskal Herrian baino atzerrian garrantzi handiagoa duela uste dut.

- Hizkuntzen gainean adituak zaretenez, hemengo egoera soziolinguistikoaz ere zerbait ezagutu nahi izango zenuten, ezta?

- Ez ezagutu bakarrik. Autonomia lortzeaz gain, hawaiera berpiztu eta indartzea da beste helburuetako bat. Arazo nagusia zera da, hawaieraz hitz egiten dutenak zaharrak bakarrik direla. Horregatik, orain dela urte batzuk eskoletan hawaiera irakasten hasi ziren. Baina jakina, han egin denak ez du hemengoaren antzik. Ikastola batzuk bisitatu ditugu eta izugarri

gustatu zaizkigu, bai sistema eta baita haurrak zelakoa diren ikustea ere.

- Posible da herri bat elebakarra izatea?

- Ez. Gaur egun, munduko herri gehienak gutxienez elebidunak dira. Indian, adibidez, normalean bi edo hiru hizkuntza jakiten dute eta gauza bera gertatzen da beste hainbat tokitan ere.

- Elebidunak direnek erraztasun handiagoa dute hirugarren hizkuntzak ikaste-ko?

- Hori esaten da, baina egia esan, teoria hori ez dago konfirmatuta. Oso ikerketa gutxi egin da horren inguruan, eta oraingo ezin da esan hala denik.

- Kooperatibismoaz gain, zerk harritu zaituzte?

- Ez genuen uste inguru hau hain zoragarria izan zitekeenik. Pelikuletan ikusten dira hemen dituzuen paisaiak. Estatu espainiarreko toki batzuk ezagutzen genituen aurrez, baina hau desberdina da. Guztiz txunditurik goaz.

● **“Mugimendu kooperatibistak, hemen baino atzerrian du garrantzi handiagoa”**

Kobazuloak: Naturaren bazter izkutuak

Maria Agirre

Miloika urtetan zehar eta tantaz-tanta, mendiak zulatuz joan da ura. Poliki eta denbora luzez egindako lanaren ondorioz, bazter izkutu miresgarriak utzi dizkigu: haitzuloak edo kobak. Arrasate Espeleologia Taldeak, 100 haitzulo inguru katalogatu ditu herrian. Barruan argirik ez den arren, iluntasunak gauza harrigarriak gordetzen ditu, naturak bere kapritxora moldatutako "museo" txiki horietan.

Kareharrizkoak izaten dira urak zulatu ohi dituen mendiak. Udalaitzen ere, kareharrizkoa izanik, hainbat haitzulo egin du urak eta nabaritzen ez den arren, oraindik mendia zulatzen jarraitzen du. Lan hori batzutan bakarka egiten du eta beste batzutan CO₂ak (anhidrido karbonikoak) laguntzen dio. Hain zuzen ere, CO₂ eta uraren konbinaketatik azido karbonikoa sortzen da eta elementu horrek ere haitzetan zuloak egiten ditu.

UDALAITZEN 100 KOKA


Koba ezagunenak lehenagotik ezagutzen ziren arren, 70. hamarkadan sortutako Arrasateko Espeleologia Taldea, kobak aurkitzen hasi zen Udalaitz inguru-

ruan. Lan hori belaunaldi desberdinetako lagunek egin dutenez, orain taldean daudenek ez dakite ikerketa hasi zutenak zeintzuk izan ziren ere. Baina dagoeneko guztien artean egindako lana bukatuta dago eta 100 koba inguru aurkitu dituzte herrian. Baina ez aurkitu bakarrik, haitzuloen planoak eta ezaugarriak biltzen dituen lana ere egin dute.

Arrasaten mota desberdineko haitzuloak daude: txikiak, luzexegoak, estuak, zabalak, bertikalak nahiz horizontalak. Hala ere, gehienak txikiak dira. Handiena Lezetxiki da, 1.630 metro ditu. Luzeran bigarrena, berriz, Montxon 1.150 metroekin eta hirugarrena, Lakain-Gain 200 metrokoa. Hori bai, guztiak oso zaharrak dira, Kretaziko garaikoak, hau da, Jurasikoaren ostean sortutakoak. Atxabal, Labeko Koba, Koba Txiki, Oterreta, Lezetxe, Etxaluze, Galarra, Kobatxo... dira horietako batzuen izenak.

BARRUAN ZER DAGO?

Kobazulo batzuetan aspaldiko gizonaren aztarnak aurkitu izan dira. Aztarna garrantzitsuenak Lezetxikin aurkitu ziren, baina Oterreta, Lezetxe eta Kobatxon ere aurkitu izan dira lanabes eta hezur zaharrak. Bariantea egiterakoan desagertu zen Labeko Koban, hezur



Herriko haitzuloen inguruan badaude hainbat anekdota eta kondaira.


harrigarriak aurkitu ziren orain dela urte gutxi: elefante baten hagina eta errinozerontearen matrailezurra, (oraindik laborategi lanak bukatu gabe daudenez, ez dago ikerketaren emaitzik).

Baina bada besterik. Koben barruan oraindik bizitza dago. Lur azpiko errekatxoak kobetatik barrena ibiltzen dira eta kanpoan ikus ezin daitezkeen landare zein insektu txikiak bizi dira barruan. Azeri eta saguzarrek ere koben aterpea aukeratu izan dute. Eta zelan ez, edertasunez beteriko estalaktita eta estalakmitak ere badira. Galarretakoak ei zen estalaktika politenak zituen koba, baina garai batean inongo kontrolik gabe atera eta saldu ziren, ondoren bisuteriazko bitxiak egiteko. Noizbait Madrilgo Naturzientzien museora bazoaz, Galarreta-

tik ateratako estalaktita bat ikusteko aukera izango duzu.

ANEKDOTAK ERE BAI

Kobazuloak historiarrean "espezialistak" diren



**errian 100
koba inguru
aurkitu dituzte
Arrasate
Espeleologia
taldekoek.**



Udalaitz inguruan dauden koba gehienak txikiak dira.

arren, pasadizo eta kondaira modernoagoak ere badituzte. Batzuk kontatzen dutenez, erromatarren garaian, kristauak erromatarrengandik ihesi ibili behar izaten zutenean (harrapatu ezker

hil egiten baitzituzten) Zaragozako gotzaia, San Valerio, Galarrako kobara etorri zen gordetzera. Herria, kristauen nukleo garrantzitsua zela esan nahi du horrek. Hala ere, batzuen

K

anpoan ikus ezin daitezkeen gauzak aurki daitezke kobetan.

ustez kondaira baino ez da kontu hau. Egia da, 1845ean Isabel IIak eta bere ama Maria Kristinak Galarrako koba bisitatu zutena, Santa Agedako bainuetxera etortzen zen beste hainbat bisitarik bezala. Hain bisita garrantzitsuen oroimenez, oroitarri bat jarri zuten koba barruan eta oraindik ere bertan dago, gaizki zaindu denez idatziak zer esaten duen irakurtzea zaila den arren.

Gerra zibileko aztarnarik

ere aurkitu izan dute Arrasate Espeologia Taldekoek. Kurtze txiki koban, adibidez, lau pertsonaren hezurak aurkitu zituzten eta horietariko baten buruhezurrean garbi-garbi ageri zen bala batek egindako zuloa.

ARRASATEKO TALDEA

70. hamakadaren hasieran hasi zen herriko espeologia taldea bere bidea urratzen. Hasieratik, Aranzadi zientzia elkartearekin egon da harremanetan eta elkarte horren gidaritzapean egin izan du beti lan. Era horretan Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako inguruetan hainbat eta hainbat koba aurkitu eta ikertu dute.

Inguruko lana bukatuta, orain dela bi urte Itziarko Aisa koba ikertzen hasi ziren eta lan horretan jarraitzen dute oraindik.

Horrelako gauzetan ari zeko gutxienez biologo edo geologoa izan behar dela pentsatuko duzue askok, baina ez da horrela; Arrasateko taldean daudenak apurka-apurka joan dira ikasiz, aditu bihurtu arte. Nahikoa da gogoia izan eta interesa jartzea.

Agian erreportaia irakurri ondoren kobaren batetara joateko griña piztuko zitzaizun. Naturak jarri dituen trabez ezik, kobetara sartzeko ez duzu beste oztoporik izango. Edonor sar daiteke baina barruan zaudela, komeni da arau batzuk jarraitzea.

- Legez kanpokoa da koba barruan aurki daitezkeen hezur edo elementu arraroak besterik gabe norberarentzat hartzea. Zerbait berezia aurkitzen baduzu, jarri harremanetan Arrasateko Espeologi Taldearekin.

- Ez garrasirik egin eta utzi bakean bertan dauden bizidunak, saguzaharrak batez ere.

- Hobe izaten da laguneren batekin joatea: arriskutsua da bakarrik sartzea.

- Ez margotu ezer hormetan eta ez ikutu estalaktita eta estalakmitak.

- Derrigorrez argia eraman behar duzu. Azetilenozkoek ematen dute argi egokiena.

- Barruan lokatzara handia egoten denez, plastikozko buzua jantzi eta barrutik nahiko erropa jantzi, hotz egiten du eta. Oinetan katiuska luzeak jartzea da onena.

- Kaskoa ahaztu gabe jantzi.

- Aurrez eskatu informazioa: planoak, arnesik beharko ote duzun galdetu...



Kobetara edonor sar daiteke, baina hobe izaten da bakarrik ez joatea.

Landare-zorrien aurka zer?



SALOME ELKOROBARRUTIA

Landareei sortzen zaizkien xomorro edo mamorroak kentzeko produktu kimikoak saltzen dituzte denda berezietan. Hala eta guztiz ere, etxean ere presta daitezke erositako horiek bezain eraginkorrak direnak, eta erraz eta merke egiteko modukoak.

Etxeko landareetan gehien agertzen dena landare-zorri beltza eta berdea iza-

ten da. Erremedio hauek zorria agertu aurretik prebentzio moduan edo zorria agertu eta gero kentzeko erabil daitezke. Desagertu arte egitea komeni izaten da.

Hara erremedio batzuk:

- Ura lejia tantaka batekin.

- Ura eta ozpin zuria nahastuta erabiltzea izaten da modu bat. Litro erdi uri koiladakada bat ozpin botata, gero esprai batean jarri eta landareari botatzea oso ona da, edozein landararentzat gainera.

- Landarearen orpoan berakatz atala sartzea. Berakatz, gizakiarentzat ere osasungarri den moduan, baita landarearentzat ere.


- Asun ura: Asuna uretan egosita, edo bestela 8

bat orduan beratzen edo mazerazioan edukita. Hor-tik sortzen den ura erabili espraiaz landarea bustitze-ko.

- Tabakoa, geratutako mutxikinak eta tabako hondarrak: Daudenetan uretara bota eta zortzi bat egunean bertan euki beraketan.

Haren ura irasi eta ixipubatekin landareari txipristinak bota.

- "Txinbo" jaboia uretan euki eta ur hori gero alegria eta antzeko landareei botatzeko oso egokia izaten da. Ez dio landareari bat ere kalterik egiten eta xomorren kontra oso ona da.



BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Z E R N A H I A G O ?

Yolanda Sagarna Rodriguez Udaltzaina



- Noiztik lan honetan? 2 urte t'erdi daramatzat.
- Makilajerik? Normalean ez; begietako marra baka-
rrik.
- Bikinia ala bainujantzia? Bainujantzia.
- Zerk lotsarazten zaitu? Ezerk ere ez.
- Erraz belzten zara? Bai.
- Zein ordutan oheratzen zara? 12ak aldera.
- Dantzan egitea edo dantzan ikustea? Dantzan
egin.
- Eskutitzak idatzi edo telefonoz deitu? Telefonoz
deitu.
- Zein egunkari irakurtzen duzu? "El Diario Vasco".
- Udan, kafe hotza ala beroa? Beroa.
- Gaua ala eguna? Gaua.
- Irratiko saio bat? Euskadi Irratiko albistegiak.
- Eguzkia hartu edo zuhaitz baten itzalean etzan? Eguzkia hartu.
- Jarraitzen duzu moda? Ez.
- Sinestuna zara? Ez.
- Zer iruditzen zaizu emakumezkoak apaiz izatea? Ondo; zergatik ez?
- Izaten duzu amets gaiztorik? Ez.
- "Bakalaua" musika edo "rock'n'roll" a? "Bakalaua".
- Diruak ematen du zoriontasuna? Ez, baina lortzen laguntzen du.
- Lan honen alde ona? Jendearekin izaten den harremana.
- Jaso duzu sekula saririk? Bai; gaztetan atletismoan eta xakean.
- Kremak ala olioak? Kremak.
- Zure gorputzeko zein ataletan egingo zenuke zirurgia plastikoa? Inon ere ez, baina
argaltzea gustatuko litzaidake.
- Gustora erantzun dituzu galdera hauek? Bai.

LABURRAK

Marixekako kondaira

Igande honetan hilak 4, ohizko jaia ospatuko da Aramaioko Marixekako ermitan. Makina bat urtean burutu izan den jai hau 1681. urteko abuztuaren 15ean jazotako gertae-
ra batek inguratzen du.

Dirudienez, Agustin Urtaza izeneko mandazain aramaio-
arrak ermitatik igarotzen zen bakoitzean, Anunciación edo Deikundeko Amabirgina dela-
koari otoitz egiteko ohitura zuen. Urte hartako abuztuaren 15ean, bertatik pasa baina presaka zebilenez, otoitza bueltarako utzi zuen. Bueltan, diruz beteta zetorrela, lapur batzuk dirua lapurtu eta lepoa moztu zioten. Luzaroan iraun zuen bizirik, Andres Garro apaiza, azken igurtzia emateko asmoz ermitaraino heldu zen arte. Apaiza heltzean, Agustin zutitu egin zen eta honela esan zion apaizari: "Zu Andres zara?" "Esaldi hori esan bezain laster, apaizak azken igurtzia eman eta hil egin zen.

Datorren igandean, beraz, goizeko 10.30etatik aurrera, herri-kirolak, meza, bazkaria eta erromeria izango dira Mari-
xekan.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Fubia
Cinetakoak

AUKERA ZABALA

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABAleta

94-95 Denboraldiko "Mondra"

Josu Urzelai

26 urte
arrasatearra
atezaina
4. denboraldia




Dabid Luri

19 urte
arrasatearra
atezaina
1. denboraldia




Josu Maturana

27 urte
eskoriatarra
atzelaria
6. denboraldia





Xabier Urbina

24 urte
arrasatearra
atzelaria
6. denboraldia




Ignazio Rodriguez

25 urte
arrasatearra
atzelaria
5. denboraldia

Igor Gordobil

23 urte
arrasatearra
atzelaria
5. denboraldia




Mondra taldeak beste erronka bati egingo dio aurre aurtengo denboraldian. Nedza Zivojevic entrenatzaile bosniarren gidaritzapean 23 jokalaribili dira denboraldia prestatzen. Uztailean hasi zituzten entrenamenduak eta abuztu-ko lehen astean, astebeteko atsedena izan ondoren, goizez zein arratsaldean entrenatu dute. Iazko plantilatik 6 baja egon dira: Alberto Garro, Juan Carlos Moreno, Ramon Agirrezabal, Luis Mari Dieguez, Garikoitz Agiriano eta Raul Leiba. Dena dela, aurtun aurpegi berriak ikusteko aukera izango dugu. Zerrendan agertzen diren jokalaribatzuk ez dute 3. mailako fitxa izango, 2. erregionalekoa baizik. Horrela bada, jokalarioriek 2. erregionalean jokatu-ko dute eta euren beharrik izan ezker, 3. mailara igotze-ko aukera izango dute. Mondrak datorren larunbatean hasi-ko du 94-95 denboraldia Las Arenasko Gobela futbol zelaian. Beraz, Arenas taldea eta Mondra izango ditugu aurrez aurre eta orduan erakutsi beharko du Mondrak zer egiteko gauza den. Zorte on 94-95 denboraldian!



Luis M^o Madinabeitia

26 urte
atxabaltarra
atzelaria
2. denboraldia




Asier Lopez

20 urte
arrasatearra
atzelaria
3. denboraldia

Sergio Garcia

16 urte
arrasatearra
atzelaria
1. denboraldia




Iban Aranguren

22 urte
arrasatearra
erdilaria
5. denboraldia




Fermin Carrillo

28 urte
eskoriatarra
erdilaria
3. denboraldia




Iker Egaña

22 urte
Oñatiarra
erdilaria
3. denboraldia




Rafa Luengo

26 urte
arrasatearra
erdilaria
1. denboraldia




Gorka Akizu

23 urte
eskoriatarra
erdilaria
1. denboraldia





ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Raul Fernandez

19 urte
arrasatearra
atzelaria
1. denboraldia






Agustin Calleja

19 urte
arrasatearra
erdilaria
1. denboraldia




Ruben Rueda

19 urte
arrasatearra
erdilaria
1. denboraldia

Julen Arkauz

20 urte
arrasatearra
erdilaria
1. denboraldia




Beñat Apraiz

19 urte
arrasatearra
erdilaria
1 denboraldia




Juan L. Aranburuzabala

28 urte
arrasatearra
aurrelaria
5. denboraldia




Iker Balzategi

26 urte
arrasatearra
aurrelaria
6. denboraldia




Kepa Azkue

26 urte
donostiarra
aurrelaria
3. denboaldia




Gorka Otxoa

23 urte
arrasatearra
aurrelaria
1. denboraldia




Nedza Zivojevic

38 urte
Bosniarra
entrenatzailea
1. denboraldia




Jose Luis Sexto

26 urte
arrasatearra
2. entrenatzailea
1. denboraldia




Roberto Hierro

26 urte
arrasatearra
Masajista
1. denboraldia




Kirol ikastaroak irailerako

94-95 denboraldirako hainbat kirol ekintza antolatu du Aukeak. Beste urte batzutan Aukeak antolatzen zituen ekintzak bazkideei zuzenduta bakarrik egoten ziren arren, aurten eskaintza luzatu egin du eta Arrasateko edozeinek parte hartu ahal izango du. Dagoeneko 3 ikastaro daude abian. **Mantentze-soinketa** ikastaroa 20 eta 60 urte bitarteko arrasatearrei eskainiko zaie. Ikastaroa goizez zein arratsaldean emango da eta ordu-tegiari dagokionez, goizean 9etatik 10etara eta 10etatik 11etara. Arratsaldean, ostera, 5.30etatik 6.30etara eta 6.30etatik 7.30etara. **Adineko soinketako ikastaroa** 2 txandatan banatuko da. Ikastaroa Musakolako kirol-



degian izango da astearte eta ostiraletan, goizez. Ordutegia: goizeko 10.30etatik 11.30etara eta 11.30etatik 12.30etara. Tenisean jokatzeko antolatu den ikastaroa Musakolako kanta estalian izango da; bi txanda egin dituzte eta partaideak mailaren arabera banatuko dira: lehenengo txanda hastapenekoak izango da eta bigarrena hobekuntzakoak. **Tenis ikastaroa** astelehen, asteazken eta ostegun goizetan emango da, 10.30etatik 11.30etara eta 11.30etatik 12.30etara.

Ikastaro guzti horietan izena emateko Musakolako kiroldegira joan behar duzuelehen bait lehen, izan ere, epea irailaren 10ean bukatuko da.

Iñaki Fernandez Matamoros Ezinduen mugak gaindituz

Iñaki Fernandez, Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza saileko teknikaria da. Bere lana hezkuntza berezia behar duten pertsonen laguntza baino askoz sakonagoa da eta argi utzi du, muga handiak daudela oraindik gainditzeke.



— Zein da Gipuzkoan atzeratuaren integrazioaren egoera?

— Egia esan, abanguardian gaudela esan behar da, historia aberatsa daukagu alor horretan: Duela 20 edo 25 urte Gipuzkoan elkarteak zeuden, Gautena, Aspace, Atzegi eta beste hainbat, hau da, minusbalia bakoitzak bere elkartearen zuen. Elkarrekin euren eskolak egin zituzten eta horrela, atzeratu guztiak eskolarizatuak egotea lortu zen. Pixka bat beranduago, duela 15 bat urte, integrazioa hasi zen, hau da, pertsona atzeratuak eskola normaletan integratzen hasi ziren. Beraz, nahiko aurreratuta gaudela esan daiteke, baina arazo asko daude oraindik gainditzeke.


— Zein arazo azpimarratuko zenituzke?

— Atzeratu fisikoei dagokienez, eskoletako oztopo arkitektonikoak, adibidez. Gipuzkoan 10 bat

eskola bakarrik egongo dira oztopo horiek gabe, eta oso gutxi dira. Bestalde, irakasleen formazioa; formazio berezia izan behar da atzeratuekin lan egin ahal izateko.

— Integrazioa zelan burutzen da eskoletan?

— Integrazioa ez da neska edo mutil bat eskolan sartzea, eskola eta gizartea bera ere neska-mutil horren integrazioan integratzea baizik. Eskolak integrazio modelo ezberdinak eratzen ari dira orain: Gipuzkoan, integrazio ere-



“Ez dut ulertzen atzeratuek zergatik joan behar duten eskola berezietara”

du normalizatuena neska-mutilko atzeratuak eskola normaletan geletan egotearena da eta ez eskola berezietan. Gure ustez, horixe da onena, eskola berezietan eta normaletan lortzen den erantzuna berbera izaten da eta. Ez dut ulertzen zergatik joan behar duten eskola berezietara.

— Hezkuntzan egin berri den erreformak, zein berriztapen ekarri du atzeratuentzako?

— Normalizazioa, integrazio eskolarra, banakako programak... Erreforma berriak eskola bakoitzak izan behar dituen edukin minimoak zehazten dira eta hortik abiatuta, eskola bakoitzak bere programa indibiduala egin behar du, bere “proiektu kurrikularra”.

— Gizarteak bere aldetik zer egin behar du pertsona hauek integratu daitezke?

— Oso arazo handia da hori. Haurren artean, adibidez, ondo integratzen dira 15 edo 16 urte bete arte, baina gero, “selektzio-naturala” deritzen hori gertatzen da eta haur bakoitzak bere antzeko haurrak bilatzen ditu elkarrekin ibiltzeko. Eskoletan, ohizko ikasgaietaz gain, beste gauza batzuk erakutsi beharko liriteke: Solidaritatea, errespetua...

LABURRAK

Hiru sari bueltan

Goikobalu abesbatzaz ari gara, abuztuaren 17tik 24ra Cantabriako San Vicente de la Barquera herrian jokatuako “XXVII Certamen de la Canción Marinera” txapelketatik 3 sari garrantzitsuenak ekarri dituzte eta bueltan.

Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, 70 ahots abiatu ziren San Vicentera. Derrigorrezko obran, Sabin Salaberri aramaioarraren “Biñeta Barquereña” abestu zuten eta interpretazio onenaren lehen saria irabazi; “Canción Marinera” sailean, Angel Barjaren “Como un eco en el mar” abestu eta lehen saria jaso zuten; Azkenik, abesti librean sailean, V. Zubizarretaren “Ama, begira zazu” kantatu eta lehen saria eskuratu zuten Goikobaluk.

Iñaki Olaizolak adierazi digunez, “abesbatzak bul-tzada bat behar zuen; entsaio pila bat egin dugu eta fruituak jasotzeko ordua zen. Sarien berri jakin genuenean, zoratu egin ginen denok”.

Bestalde, Gironako Pereladako festibalean, Goikobaluko 19 ahots batu zitzaizkion Donostiako Orfeoari eta 2 ahots Donostiako Musika Hama-bostaldian. Aurrerantzean, folklozez osatutako konpaktu bat grabatzeko asmoa dute eta baita hainbat kantaldi eskeintzekoa ere.



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrieras, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Agur 695 jarleku urdinei

Behin betiko agurra eman zaie 15 urte baino gehiagotan Alai zineman makina bat lagun en atsendenleku izan diren 695 jarleku urdinei. Abuztuaren lehenean hasi zituzten obrak eta jarleku guztiak

berriztu, zorua lixatu, konpondu eta alfombra berriak jarri dituzte.


Zineman 40 jarleku gutxiago badaude ere, asko irabazi du. Zinera joaten ziren guztiak kezu ziren jarlekuen ezerosotasunaz

eta hauen arteko distantzia txikieiz. Jarri berri diren jarlekuak oso modernoak dira eta bata eta bestearen arteko distantzia metro batekoa. Modu honetan, patioan 327 jarleku daude eta anfiteatroan 328, 655 guzti-

ra. Abuztuaren azken asteburuan zabaldu zituen atak Alai zinemak eta jendeak berriztapen hau oso positibotzat jo duela azpimarratu behar da.

ARAZO EKONOMIKOAK

Jose Antonio Zubillagak, zinemaren jabeak ARRASATE PRESS-i adierazi dionez, zinema Multicine bihurtzearen asmoak itxaron egin beharko du, "Euskal Gobernuak zine pribatuei ematen dien dirulaguntzak urriak baziren, orain nuloak dira. Horren lekuko, azken 10 urteotan 40 zine itxi izana" dio Zubillagak. Dena dela, denbora gutxi barru, komunak berritu eta zinemako fatxada aldatuko da.



Zinera joatekotan, Arrasatekora edo hirietakora? Beharrezkoa ikusten zenuen jarlekuen aldaketa?



Manu Gomez, 21 urte

Bietara joaten naiz; kanpora joatekotan, Gasteiza. Jarlekuei dagokionez, oso oso beharrezkoa ikusten nuen horiek berritzea, "preistorikoak" ziren eta. Berriztapen honekin, jende gehiago animatuko da zinera joaten.



M. Angel Segovia, 27 urte

Egia esan, oso gutxitan joaten naiz zinera, nahiago izaten dut irakurtzea. 3 urte dira gutxienez Arrasateko zinera joaten ez naizela, beraz, ezin dut jarlekuei buruzko iritzirik eman.



Cristina Rodriguez, 18 urte

Ez naiz sekula kanpora joaten pelikulak ikustera, Arrasateko zinera joaten naiz beti. Egia esan, jarleku aldaketa beharrezkoa zen; ez zegoen eroso egoteko postura aurkitzerik.



Mari Tere Arriaran, 62 urte

Ez, ez daukat ez kanpoetara ezta Arrasateko zinera joateko ohiturarik. Dena dela, bertan ikusi nuen azken pelikulan ez nintzen batere eroso sentitu, beraz, oso ondo ikusten dut berriztapen hau.

LORA
TOBY

LORATEGI

Iturriotz, 7

ARRASATE

Tfnoa: 79 04 67

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA

1925eko ikasturtearen amaierako ekitaldia La Merced ikastetxean.



1925eko ikasturtearen amaierako ekitaldia La Merced ikastetxean.

Merced Ikastetxeak Ospitale Zaharrean zuen ikastetxean ateratako erretratua da. 1925eko ikasturte amaiera zen. Argazkian daudenak, ezkerretik esku-mara **Teodora Mondragon, Klara Berezibar**, On **Pako Imaz** parrokoa, **Victoria Pol, Juan Goñi** Alkatea, **Gregorio Juldain** Udaletxeke idazkaria, **Rosalía Castellanos** eta **Elisa Guijarro**.

Egun handia izaten zen, ikasturte amaierako jaia.

Bertan, eskolako lehenek parte hartzen zuten, herriko agintarien aurrean. **Sor Maria Jacinta Uribesal-go** monja izan zuten maistra. Jaialdiaren hasierako diskurtsoa Teodora Mondragonek egin zuen urte hartan, eta honela hasi ei zuen: "Dignísimas autoridades y respetable público".

San Juanak aurretik egiten ziren esaminak, eta gero, jaiak aurretik egiten zen ekitaldia: bandak eta sariak ematen zitzaizkien,

josteko-otzaratxoak eta antzekoak.

Sasoi hartako eskola eta irakaskuntza modua gaurkoarengandik oso ziren desberdinak. Bereizketa handiak egoten zirela gogoratzen dute, eta nola ez, baita diziiplina zorrotza ere. Ikusi besterik ez dago, irakaslearen mahaiaren albo bietan dauden kartelak: "Silencio" eta "Aplicación" hitzekin. Mahaiaren buruan Jesusen Bihotza egoten zen, argazkian irten ez badu ere.

La

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerías, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

NIRE AUTOA BAZINA AUTO HAU IZANGO ZINATEKE.



BERTSIOAK: 3 eta 5 ate
MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, JOY Automatikoa, GLS y GSi.
MOTOREAK: Gasolina Injekzioa 1.2 (45 CV), 1.4 (60 y 82 CV),
 1.6 16V. (109 CV); Diesel 1.5(50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

OPEL CORSA
 NIRE AUTOA



Patrocinador Oficial
 del Mundial de Fútbol
 USA 94

OPEL 

Z A I N G A U Z K A Z U



TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
 Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
 Zerbitzu Oficiala **ARETXABALETAN**

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 **ARRASATE**
 Tfnoa: 79 05 86


OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.

• AIPUA •

“Hona hemen aholku bat: eutsi eta iraun ezazu, gaur egin duzun ahalegin hori oso baliotsu izango duzu noizbait eta”

OVIDIO

• JEROGLIFIKOA •



Zer lapurtu zioten baserritarrari?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
	12	13			14		
15				16			
17			18			19	
20					21		

J. B. AGORRIA

Horizontalak Baratxuri. 9. Laranja koloreko sustrai jangarri. 10. Iparretarrak. 11. Asiako ugaztun karniboroa. 12. Ukitu aditzaren infinitiboa. 14. Elektra karga daraman atomoa. 15. Jasser, PAEko lehendakaria. 17. Txakur. 18. (Ald.) Basamortuko berdegunea. 20. Ukimenari zakar egiten zaio. 21. (Ald.) Alfabeto grekoko 19. letra.

Bertikalak 1. Baieztatzeko hitza. 2. Jose Luis, Mondrako lehendakaria. 3. Musika-eskalako 2. nota. 4. Begi-mozorro. 5. Nasa. 6. Argiz betea, distiratsu. 7. Danbada. 8. (Ald.) Esnatu aurretik egindakoa. 16. Amnesty International. 19. Alkoholiko Anonimoak.

• HOROSKOPOA •

Aries Euskadiko jai guztietan izan zara, baina emaitzik jaso duzu?

Taurus Abuztuan egin dituzun lagunak gabonetan ikusiko dituzu berriz ere.

Gemini Beste oportxo batzuk ondo etorriko litzaizkizuke.

Cancer Ez etsi. Zuretzat ere izango da lantxoren bat.

Leo Udan asko ikasi duzu, baina nahikoa izango ote da?

Virgo Depremituta zaude? Eros ezazu telebistan agertzen diren almohada horietako bat.

Libra Gaur prakak apurtuko zaizkizu. Kontuz ibili eta ez makurtu.

Scorpio Lasai zaitetz. Maritxu Kajoi egunean ikusiko duzu hainbeste maite duzun hori.

Sagitarium Udan bota dituzun izerdiak errekupeartzeko, udazkenean asko jan beharko duzu.

Capricorn Guztiak lanera bueltatu direnean, zu oporretara joango zara. Ze gozada!

Aquarius Noren kontura pasa dituzu oporrak? Bada garaia lanean hasteko.

Piscis Zenbat aldiz jantzi duzu bainujantzia? Hondartzak ez ziren zuretzat egin.

LORAMENDI KIROLAK




BEHERAPENETAN GAUDE

TXANDALAK: %30 (UME ETA HELDUENTZAT)

ZAPATILAK: %20 - %50

KAMISETAK: %30
SUDADERAK: %30
PRAKAK: %30

· NAIARA GORROÑOREN GOMENDIOA ·



"Bizitza 'a tope' aprobetxatzea" horixe da Naiarak oporren amaiera honetan gomendatu nahi izan diguna. Berak ere gomendio hori gehiago jarraitu behar lukeela aitortzen du, askotan ahaztu egiten zaigu eta.

"Inguruan dugun guztia txarra dela pentsatu barik, beti izaten da motiboren bat pozik bizi izan eta barre egiteko, eta arrazoi txiki horiei lotzea gomendatuko nuke". Ikasketak, lana, guzti hori bere neurrian hartzea komeni dela... ondo dago egun hauetan gogoratzea.

· PROGRAMAZIOA ·

**Irailako programazioa**

Hilabete honetan zehar, urriko programazioari azken ikutuak ematen dizkiogun bitartean eta oporretako nagiak gainera kentzen ditugun bitartean, informatiboak besterik ez ditugu emitituko. Hori bai, abuztuaren zehar kanpoan izan bazara, ordua da herrian gertatutakoaren berri jakiteko, eta zer hobeto ATBko informatiboak ikustea baino? Egunero egunero, herrian gertatutako berri guztiak ikusgai eta entzungai izango dituzu ohizko informatiboetan eta betiko orduetan: 20.00etan, 20.30etan eta 21.00etan. Has zaitez esnatzen!

· KOMIKIA ·



JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Altzariak Diseinua Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

· SOLUZIOAK ·

Bi oilar.
Jorogifitkooa:
16. Al. 19. AA.
Tiro. 8. Torneo. 13. Ka. 15. Loa.
Re. 4. Antifaz. 5. Kai. 6. Argitsu. 7.
Bertikalak: 1. Bat. 2. Ezkurra. 3.
Oasis. 20. Latz. 21. Tau.
Uki. 14. Ton. 15. Arfat. 17. Or. 18.
Azkenario. 10. IK. 11. Tigre. 12.
Horizontalak: 1. Berkat. 9.



Etxebizitzak

- **Leioan pisua osatzeko** 2 pertsona behar dira, logela konpartitzeko prest. (Bus geltokiaren ondoan). Merke. Tfnoak: (94) 447 55 40 - (943) 79 47 16. Kaitin.
- **Arrasaten ikasle pisu** batean gela bat behar dut. Dei egin 51 91 21 tfnora.
- **Apartamentu bat alokatzen da** Torreveijan. Hondartza ondoan. Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisu bat alokatu nahi nuke.** Etxe bat alokatu nahi badidazu edo lekuren bat baduzu, deitu (94) 625 04 60 tfnora.
- **Erdialdean pisu bat salgai.** Berria da. Tfnoa: 79 42 13.
- **Ezkarain pisu bat alokatzen da** irailan. Tfnoa: 79 31 56.
- **Kurtsoan zehar, Donostian** (Grosen) hiru neska behar dira pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 30 00. Lierni.
- **2 oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisu edo lokal txikia** behar dugu alokatzeko. Merke. Tfnoa: (945) 27 98 68. M^a Luisa.
- **Altamiran** elkarren ondoko 2 garaje saldu edo alokatzen dira. Tfnoa: 77 03 22.
- **Pisua alokagai** Errioxako Ezkarain. Tfnoa: 79 31 56.
- **Pisua salgai** San Josepe auzoko 8ean. Tfnoa: 79 51 48 (9etatik 10etara).
- **Gasteizen** pisua betetzeko ikasleak behar dira. Tfnoak: 79 34 58 / 79 16 82
- **Mutil bat behar dugu** ikasle pisu bat osatzeko. Tfnoa: 51 91 21.

Lana

- **Marrazki diedriko-ko klaseak** emango dizkidan norbait behar dut. Ordainduko dut. Tfnoa: 79 08 37.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tfnoa: 79 55 28.
- **Informatikako 2.** mailako ikasleak OHoko klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tfnoa: 79 34 58.
- **Lizentziatua** latin, lengua, euskera edo OHoko klaseak emateko prest. Abuztu eta irailaren arratsaldetan. Tfnoa: 79 11 99. Itziar. Dei egin 12.30etatik 2ak arte.
- **Emakume bat behar da** Arrasaten haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: (945) 28 84 05.
- **Injinerutzako ikaslea** klaseak emateko prest. Arloak: matematikak, marrazkia eta fisika. Tfnoa: 79 16 19.
- **Emakume euskalduna** umeak zaindu edo etxea garbitzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klase partikularrak** ematen dira uztaile eta abuztuan. OHO, BBB eta UBI (gai guztiak). Tfnoak: 79 46 75-79 23 36.
- **Filosofian lizentziatu** EGAduna behar da. Titulazioa: Teologia eta pedagogia erlijiosoa edo antzekoa. Interesatuak aurkeztu kurrikuluma San Viator Ikastolara.
- **Mendiolako jatetxean** neska bat behar da kamarera lanak egiteko. Harremanetarako dei egin 71 43 45 tfnora. Eguerditik aurrera.
- **Klase partikularrak:** ingelesa eta euskara. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.
- **Pertsona euskalduna** behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 56 30.

Salerosketak

- **Idazmakina elektriko** eta memoriaduna salgai. Tfnoa: 79 47 14.
- **R.9 baten** asientoetarako fundak erosiko nituzke. Tfnoa: 77 04 21.
- **Lasterketa bizikleta salgai.** Kuadroa "MENDIZ" eta "LOOK" Pedal automatikoekin. Prezioa: 40.000 pta. Tfnoa: 79 25 15.
- **Jende famatuaren argazki** originalak saltzen ditut: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan... e.a. Idatz ezazu eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 seilu. Helbidea: Igor Galo. Avda. Zarauz 13-3.. 20009 Donostia. Tfnoa: (943) 2106 40.
- **YAMAHA FZR 600.** Merke. Tfnoa: 79 97 48.
- **YAMAHA gitarra** eta gitarra gordetzekoa salgai. Prezio ona. Tfnoa: 11 13 79. Iñaki. 8etatik 2etara.
- **"ESTELLA"** akordeoia salgai, 120 bajurekin. Tfnoa: 79 46 75 eta 79 23 36.
- **Negutegi edo inbernadero** bat saldu nahi nuke. Tfnoa: 79 52 80.
- **"CANON EOS-650"** argazki kamara saltzen dut. Prezio ezinhobean. "35-70 objektiboa" bame. Tfnoa: 79 23 60. Niko.
- **la berria dagoen** akordeoia saltzen dut. 120 baxu. Beltza. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklotorea** salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 66 92. Juan.

Denetarik

- **Urrezko pultsera** galdu da erdialdean. Tfnoa: 79 86 33.

Aste Gazte

Lana

• Lazkaoko Udalak Liburutegirako Administari lanpostu bat deitu du. Ikasketa maila: LH II, batxilerra. Epea: irailak 21.

Bekak

• 1994-95 ikasturtean unibertsitate mailako eta goimailako beste ikasketa batzuk egiteko, izaera orokorreko bekak. Kontzeptu ezberdinak: matrikula, ikas-materiala, garraioa, alojamendua,... Epea: urriak 14.

• "CEOE Fundazioak" kazetaritza arloko (prentsa, irri eta telebista) beken deialdia egiten du 95-96 ikas-

turterako. Estatu Batuetan, hamabi hilabetez. Lizentziatuei zuzenduak. Ingelesa menperatu eta oso espediente ona edukitzea ezinbestekoa da. Epea: irailak 8.

• 1995-96 ikasturtea, Suisan ikasketa artistikoak betetzeko bekak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken urtean dauden ikasleei zuzenduak. Frantsesa edo alemana menperatzea ezinbestekoa da. Epea: irailak 15.

Unibertsiterako Autobusa

• Donostiara eta Bilbora, egunero joan etortzeko autobus zerbitzua antolatzen asmoa du "Aixola" ikasleen elkarteak.

Goizez nahiz arratsalde, ordu-tegi ezberdinak. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezaketzue izena, irailaren 23 baino lehen.

Lehiaketak

• "Gazteak Naturan" V. Argazki Lehiaketa. Gaia: Gazteak Naturan. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak; b) 21-35 edozein. Bi modalitate: a) zuri-beltzean; b) koloretan. Epea: urriak 14.


• "Koldo Mitxelena" Saria. Helburua: euskararen inguru sozial, historiko eta linguistikoa sakondu eta garatuz egin diren ikerketa lanak sustatzea. Lanak euskaraz, erdaraz edo frantzez aurkez daitezke. Epea: irailak 20.

"... Gaztedian, gizarte helduaren balore berberak aurkitzen ditugu, era gazte batetan adierazita, gizarte gazteak zorrotzu eta kontraesanetan jarrita".

JAUME FUNES
"ENTREJOVENES"
ALDIZKARIA.



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITERIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ☎797489
ZARUGALDEKLINIKAZarugalde, 25behea(24ordutan) ☎791531

BARNE MEDIKUNTZA

NUTRISAN Kalealde, 11 ☎796578

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

CENTRO MEDICO UDALAITZ(Análisis klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎794422

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ☎792018

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10..... ☎798816

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6..... ☎795075

DENTISTAK

IRIARTE IRURETA ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ☎796945

MASAILARIAK

IOSU ARANZABALDr. Bañez 10, 1º ☎791818
J.CRUIZ ZABALOA AZKOAGA(Quiromasaia) Jose M. Eguren 4-Behe ☎795638

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ☎797979

centro hogar MUEBLES en
ez da ziririk sartzen.



**ARRASATEKO BARIANTEA
ETA AMUEBLADORA MONDRAGONESAREN GARANTIA
2000 M² TAKO ARETOA ZABALDU BEHAR DUGU**

garantiaz



**Amuebladora
Mondragonesa**

sartzen dena: zeuk behar dituzun altzariak